Europako Batzordea



# Gazteak

**Bere gazte-programa eta-politiken bidez, Europar Batasunak bermatu nahi die gazteei gizartearen esparru guztietan parte hartuko dutela, eta, aldi berean, aukera gehiago eskaini nahi dizkie hezkuntzan eta lan-merkatuan.**

Gazteek gizartean parte hartzea ezinbestekoa da Europako gizartearentzat eta bizitza demokratikoarentzat. Europar Batasunaren gazteentzako estrategiak hau guztia sustatzen du: gazteak heldutasunera igarotzea, haien osasuna eta ongizatea, gizartean parte hartzea, boluntariotza- eta elkartasun-jardueretan parte hartzea, enplegua eta ekintzailetza. Europar Batasunaren gazteria-arloko politikek, gainera, beren hezkuntzan eta gaitasunetan dauden hutsuneak murrizteko aukera ematen diete gazteei, erronketara hobeto egokitzeko eta gizartean aldaketa positiboa izaten laguntzeko. Horrek garrantzi berezia du, gazteen langabezia-tasak oso handia izaten jarraitzen baitu.

## Zer egiten du Europar Batasunak?

Europar Batasunak zenbait programa eta ekimen ditu Europako gazteei gizartean paper aktiboagoa izaten eta beste herrialde batzuetako esperientziez baliatzen laguntzeko. Honako hauek sartzen dira, bereziki:

- Erasmus+: Europar Batasunaren programa hori Europako hezkuntzari, prestakuntzari, gazteriari eta kirolari laguntzeko da. 14 700 milioi euroko aurrekontua dauka, lau milioi europarri baino gehiagori aukera ematen die ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko atzerrian gauzatzen dituzten esperientzien bitartez (ikasketak, pratika-kontratuak, ikaskuntza kontratuak, gazte-trukeak, irakaskuntza, prestakuntza, gazte-lana eta kirola).
- Batzordeak azpimarratu du elkarrizketa egituratua behar dela, gazteen eta arduradun politikoen arteko komunikazio-bide gisa, gazteei eragiten dieten politikei buruzko lehen eskuko iritziak lortzeko. 18 hilabeteko zikloetan antolatuta, elkarrizketa egituratuko ziklo bakoitza gai espezifiko batean jartzen du arreta, eta gai horri buruz duten iritzia entzuteko aukera ematen die gazteei.
- Gazte ekintzaileentzako Erasmus programak enpresa txiki bat sortzeko eta eramateko beharrezko gaitasunak ematen dizkie Europako ekintzaile berriei edo gazteei.
- Europako Elkartasun Taldea Europar Batasunaren ekimen bat da, eta gazteei elkartasuna adierazteko aukera ematea du helburu, beren herrialdean bertan edo atzerrian Europako biztanleei eta komunitateei mesede egiten dieten jardueretan parte hartzearen bitartez.
- Gazteen bermeak, 8.800 milioi euroko aurrekontua daukana, gazteen enplegua babesten du, eta hogeita bost urtetik beherako gazte guztiek prestakuntza arautua amaitu edo langabezia-aldia hasi eta lau hilabeteko epean eskaintza zehatza eta kalitatezkoa jasoko dutela bermatzen du.




Gazteen Europako Atariak Europar Batasunaren ekimen horiei eta beste batzuei buruzko informazioa eskaintzen du Europa osoko gazteentzat; EURESek, berriz, (mugikortasun profesionalaren Europako ataria) enplegu-eskatzaileak eta lana eskaintzen duten enpresak konektatzen ere laguntzen du.

Informazio gehiago: https://ec.europa.eu/info/topics/youth_es

facebook.com/EuropeanYouthEU/ @EuropeanYouthEU

# **Nola jarri harremanetan**
# Europar Batasunarekin

## ON LINE
Europar Batasunari buruzko informazioa aurki dezakezu, Batasunaren hizkuntza ofizial guztietan, Europa webgunean: https://europa.eu/european union/index_es

## ZUZENEAN
Europe Direct izeneko ehunka informazio-zentro daude Europar Batasunean.

Hona gertuen duzun zentroaren helbidea:
https://europa.eu/european-union/contact_es

## TELEFONOZ EDO POSTA ELEKTRONIKOZ
Europe Direct zerbitzuak Europar Batasunari buruzko galderei erantzuten die.
Zerbitzu horretan hoenla sar zaitezke:

- Doako telefono-zenbakia markatuz: 00 800 6 7 8 9 10 11 (operadore batzuek deiengatik kobra dezakete);
- telefono-zenbaki hau markatuz: 00 32 2 299 9696;
- posta elektronikoz: https://europa.eu/european-union/contact_es

## IRAKURRI EUROPARI BURUZ
Europar Batasunari buruzko argitalpenak eskura dituzu webgune honetan, klik bat eginez: https://op.europa.eu/es/publications

## EUROPAR BATZORDEAREN ORDEZKARITZAK
Gainera, Europako Batzordeak bulegoak (ordezkaritzak) ditu Europar Batasuneko estatu kide guztietan: https://ec.europa.eu/info/ about-european commission/con-tact/local-offices-eu-member-countries_es

## EUROPAKO PARLAMENTUAREN LOTURA-BULEGOAK
Europako Parlamentuak lotura-bulego bat du Europar Batasuneko estatu kide bakoitzean: http://www.europarl.europa.eu/at-your-service/es/stay-informed/ liaison offices-in-your-country

## EUROPAR BATASUNAREN ORDEZKARITZAK
Europar Batasunak ere baditu ordezkaritzak munduko beste leku batzuetan:
https://eeas.europa.eu/headquarters/headquarters-homepage/area/geo_es

## «Zer egiten du Europar Batasunak?» serieko beste informazio-fitxa batzuk

- Klimaren eta Europako Itun Berdearen aldeko ekintza
- Aduanak
- Nekazaritza- eta Landa-garapena
- Europar Batasuna handitzea
- Itsas-gaiak eta arrantza
- Laguntza humanitarioa eta babes zibila
- Merkataritza
- Lehia
- Kontsumitzaileak
- Nazioarteko lankidetza eta garapena
- Kultura eta komunikabideak
- Kirola
- Ekonomia, finantzak eta euroa
- Ekonomia eta gizarte digitalak
- Hezkuntza eta prestakuntza
- Enpresa eta industria
- Energia
- Fiskalitatea
- Mugak eta segurtasuna
- Ikerketa eta berrikuntza
- Justizia eta oinarrizko eskubideak
- Gazteak
- Ingurumena
- Merkatu bakarra
- Migrazioa eta asiloa
- Enplegu eta gizarte-gaietako politika
- Europako auzotasun-politika
- Kanpo politika eta segurtasun politika
- Eskualdeko politika
- Aurrekontua
- Iruzurrari aurrea hartzea
- Osasun publikoa
- Elikagaien segurtasuna
- Banku- eta finantza-zerbitzuak
- Garraioa

Europar Batasunari buruzko galderak?
Europe Direct lagungarria izan daiteke zuretzat:
00 800 6 7 8 9 10 11,
http://europedirect.europa.eu

**Informazio-fixa honek argitalpen honen zati bat da «La Unión Europea: ¿Qué es y qué hace?».** Online edukirako estekak dituen bertsio interaktibo bat pdf eta HTML formatuan dago eskuragarri, hemen: https://op.europa.eu/ webpub/com/eu-what-it-is/es/


2020ko urtarrilean amaitutako eskuizkribua

Europako Batzordea ez da argitalpen hau berrerabiltzearen ondorioen erantzule.

Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoa, 2020



© Europar Batasuna, 2020

Europako Batzordearen dokumentuak berrerabiltzeko politika Batzordearen dokumentuak berrerabiltzeari buruzko 2011ko abenduaren 12ko 2011/833/EB Erabakiak arautzen du (EBAO, L 330, 2011/12/14koa, 39. or.).

Besterik adierazi ezean, dokumentu hau berriz erabiltzea Creative Commons Attribution 4.0 International (CC BY 4.0) lizentziaren bidez baimendu da (https://creativecommons.org/licenses/by/4.0 /). Horrek esan nahi du berrerabil daitekeela iturria behar bezala identifikatuta badago eta edozein aldaketa adierazten bada.

Europar Batasunaren jabetzakoak ez diren elementuen edozein erabilera edo erreprodukziorako, baimena zuzenean eskatu ahal izango zaie eskubideen titularrei.

Argazki guztiak: © Shutterstock, © Fotolia



Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2021eko urtarrila • Ale-kopurua: 180 ale • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza • Internet: www.euskadi.eus • Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofi ziala) • Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastián, 1 -01010 –, Vitoria-Gasteiz) • Inprimaketa: PRINTHAUS, S.L. • Lege-gordailua: LG G 105-2021

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco